

ERRAZBIDE

FORMAKUNTZA SAIOA ASpace GIPUZKOAREKIN LANKIDETZAN

Data: 2025/04/02

Kokagunea: Aspace Goienetxe Zentroa (Donostia)

Saioaren helburua: Kultura-bitartekariarentzat zuzendutako aurrez-aurreko saioa, garun-paralisia duten pertsonen kolektiboa hobeto ezagutzeko. Beharrak eta gomendioak kultura-espazioetan arreta eta komunikazioa hobetzeko.

EDUKIEN LABURPENA

Zer da garun-paralisia?

Garuneko paralisia garunean erabat garatu baino lehen izandako lesio batek eragindako garapen psikomotorraren nahasmendu bat da. Lesio hau jaio aurretik, erditzean edo jaio ondoren gertatu daiteke, 3 urte izan arte. Kasuen %90 jaio aurretik edo jaiotzean ematen dira, infekzioengatik edo garuneko malformazioengatik, besteak beste.

Garun-paralisia duten pertsonen ezaugarriak:

- Garun-paralisia duten pertsonen %80k laguntza-premia handiak dituzte bizitza osoan zehar. Hala ere, pertsona bakoitzak laguntza-premia desberdinak ditu.
- Garun-paralisia ia beti aniztasun funtzional edo desgaitasun fisikoarekin lotuta dago, eta beste hauekin ere konbinatu daiteke: adimen-desgaitasuna, hitzak ahoskatzeko zailtasunak, komunikatzeko zailtasunak, etab.
- Garun-paralisia ez da gaixotasun bat, ez du okerrera egiten denborarekin, baina sintomak aldatu daitezke bizitzan zehar.



KOMUNIKAZIO **sistemak**

- ▶ Ahozkoa
- ▶ Komunikagailuekin
- ▶ Zeinuekin
- ▶ Keinuekin
- ▶ Piktograma-plafoiekin



DESPLAZATZEKO **moduak**

- ▶ Aulki mekanikoarekin
- ▶ Eskuzko aulkiarekin
- ▶ Taka-takarekin
- ▶ Makuluekin
- ▶ Oinez zailtasunekin

Garun-paralisia duten pertsonen kultura-espazioetan aurkitzen dituzten oztopo nagusiak:



Oztopo FISIKOAK ETA **ARKITEKTONIKOAK**

- ▶ Igogailu edo arrapalarik eza
- ▶ Espazioen neurri eskasak (igogailuak, ateak, korridoreak, etab.)
- ▶ Irisgarriak ez diren komunak
- ▶ Eskuz bakarrik manipulatu daitezken elementuak (botoiak, heldulekuak, etab.)
- ▶ Elementuen altuera (beira-arasak, informazioa, seinaleak, etab.)



GARRAIO **oztopoak**

- ▶ Garraio irisgarriarik eza
- ▶ Gutxienez egun bat lehenago erreserbak egin behar izatea
- ▶ Garraio zerbitzuaren kostua



JARRERA oztopoak

- ▶ Ezjakintasuna
- ▶ Estigmak
- ▶ Infantilizazioa
- ▶ Beldurra



Oztopo EKONOMIKOAK

- ▶ Laguntzailearen aparteko kostua, sarrera bikoitza

Arreta eta komunikazioa hobetzeko gomendioak eta jarraibideak:

- Garuneko-paralisia duten pertsonak ulermen gaitasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna dute, **ez zaitez zuzendu laguntzaileari.**
- **Saihestu aurrean duzun pertsona haurtzat jotzea** eta errespetuz tratatu, beste edozein pertsona tratatuko zenukeen moduan.
- Utzi behar duten tartea eta denbora zuregana jotzen dutenean, **ez saiatu esaldiak amaitzen.**
- Zerbait ulertu ez baduzu, berriro **galdetu**, galdetzea da normalizatzeko modu egokiena.
- Pertsona bakoitzaren **erantzun-donborak errespetatu.**
- Artatzen ari zaren pertsonak garun-paralisiatz gain adimen-desgaitasuna badu: **diskurtsoa egokitu, hizkuntza argia eta erraza** erabili, etab.

Kultura-espazioen irisgarritasuna hobetzeko aholku orokorrak:



**Errespetatu sarrerako
arrapalak**



**Hizkuntza argia eta
erraza erabili**



Kokaguneak zaindu
(ez mugatu erabilera
lehen eta azken
ileretara, laguntzaileak
kontuan izan, ez sortu
espazio isolatuak, ...)



Aniztasuna kontuan izatea
(ikuskizunetan jendea zutitu
daitekela kontua izatea,
komunera iristeko ibilbide
irisgarri bat egotea, ...)

Laguntza-baliabideak eta gomendatutako formatu alternatiboak:

- Irakurketa Errazeko testuak eta edukiak izatea.
- Piktogramak erabiltzea.

Gomendatutako liburua: “Tengo parálisis cerebral, pero no estoy enfermo” - *José Manuel Mancisidor Olaizola, Budy.*